

La crisis del Covid-19 vuelve a poner de manifiesto algo que los movimientos feministas y las expertas en igualdad vienen evidenciando desde hace mucho tiempo: estamos inmersas en una gran crisis de cuidados; las vidas no están en el centro.

El reparto de los trabajos domésticos y de cuidados sigue sin ser equitativo, no hay una corresponsabilidad real. Estas nuevas situaciones provocadas por la pandemia se suman a las desigualdades de género ya existentes y de larga trayectoria. La situación actual ha reforzado la división sexual del trabajo y los estereotipos de género, siendo las mujeres mayoritariamente las encargadas del cuidado de niños y niñas, personas dependientes, ancianas, enfermas, del cuidado emocional, los trabajos materiales de cuidados, etc. Estos trabajos se realizan de manera gratuita en el seno de la familia, o de manera remunerada pero en condiciones laborales muy precarias y con pocos derechos laborales y sociales. Y, sin embargo, son trabajos esenciales para el buen funcionamiento de nuestra sociedad.

Esta crisis ha hecho visible la importancia de revalorizar estos empleos feminizados, que interseccionan con otras fuentes de discriminación, como son la raza, la clase social o la edad. Se siguen considerando secundarios, cuando son un soporte fundamental del sostenimiento de la vida. Trabajos como los servicios de cuidados en el ámbito público y de salud, cuidadoras en residencias y a domicilio, el sector de limpieza, personal de supermercados, los servicios sociales, la educación, etc., han demostrado ser ámbitos esenciales para la satisfacción de las necesidades fundamentales e imprescindibles para que “las vidas sigan vivas”.

Las crisis no suelen contribuir a disminuir las desigualdades, sino que las hacen más visibles y, muchas veces, las acrecientan. Pero también son una oportunidad de cambio, para innovar y construir una sociedad mejor, más fuerte, resiliente e igualitaria. Esta crisis sociosanitaria y vital ha puesto aún más en evidencia la necesidad de cambiar un modelo que nos lleva hacia una degradación de las condiciones de vida, especialmente de la vida de las mujeres; un modelo “biocida”, para el que las vidas no son su prioridad.

Por todo ello, queremos resaltar la importancia de la corresponsabilidad entre todas las personas, para que las mujeres no vivan dobles y triples jornadas, haciéndose cargo de los cuidados y el sostenimiento de las vidas en los hogares. Hay que romper con la división sexual del trabajo, y avanzar hacia una distribución justa de los trabajos no remunerados, repartiendo tareas y cuidados de manera efectiva.

El tiempo es limitado y debe ser disfrutado por todas las personas de forma igualitaria, sin que unos dispongan de tiempo personal o a costa del trabajo de otras. Debe existir también una corresponsabilidad entre las familias, las empresas y el Estado a la hora de atender a todos los aspectos que acarrea el ámbito del cuidado (servicios públicos universales y de calidad de atención de necesidades de cuidados, políticas de conciliación desde las empresas y reparto entre los diferentes miembros de las familias, cada persona en la medida de sus posibilidades).

Es necesario poner de manifiesto la importancia que están jugando las mujeres en la pandemia, situadas en primera línea de respuesta y, sin embargo, en ámbitos de escaso reconocimiento. Las emergencias pasan pero, si no se atienden sus impactos diferenciados, se habrá exacerbado todavía más la discriminación. Ninguna persona se

mantiene sola, somos interdependientes y vulnerables, por lo que los trabajos relacionados con el cuidado son esenciales para sostener la vida. Esta crisis evidencia todavía más la importancia de poner las vidas en el centro y cambiar el paradigma, para que éstas y su sostenibilidad sean una prioridad.

Por todo ello, como entidades locales, NOS COMPROMETEMOS A:

- **Visibilizar el entramado de los trabajos de cuidados que hacen posible la sostenibilidad de la vida.** Es decir, ser conscientes de que detrás de los trabajos productivos, es necesario el engranaje de los cuidados y del trabajo reproductivo que hace posible que cada día podamos incorporarnos al mercado laboral. Esta parte invisible necesita ser atendida y tener un soporte.
- Poner de manifiesto y poner en valor que la mayoría de estos trabajos imprescindibles, sean remunerados o no, en más de un 75% de los casos **los desempeñan las mujeres.**
- **Colocar la sostenibilidad de la vida en el centro** de las políticas y de nuestro sistema de organización, sustituyendo al actual modelo.
- Sensibilizar a la ciudadanía para conseguir un **reparto y corresponsabilidad de los trabajos de cuidados en las familias.** Un modelo que atienda a las vidas de las personas, bajo los principios de universalidad y singularidad, y al medio natural que necesitamos para seguir con vida.
- Promover el “**buen vivir**”, es decir, vidas dignas de ser vividas para todas las personas (ni a costa de nadie, ni acabando con los recursos naturales).
- **Reconocer** el trabajo del movimiento **feminista** en sus luchas, demandas y aportaciones.
- Demostrar desde lo local un sólido **compromiso** para mantener esta línea de trabajo como prioritaria en **la agenda política** garantizando la incorporación de la perspectiva de género en los planes y estrategias que se implementen como respuesta a la crisis sanitaria, económica y social generada por el COVID-19.

Covid-19aren krisiak agerian utzi du berriz ere mugimendu feministek eta berdintasunean aditu direnek aspalditik nabarmendu duten zerbait: zaintza-lanen krisi itzela bizi dugu; bizitzak ez daude erdigunean.

Etxeko eta zaintzako lanen banaketa oraindik ere ez da bidezkoa, ez dago benetako erantzunkidetasunik. Pandemiak eragindako egoera berri hauei gehitu behar zaizkie lehendik dauden eta ibilbide luzea duten genero-desberdinkeriak. Gaur egungo egoerak sexuaren araberako lan-banaketa eta genero-estereotipoak indartu ditu, emakumeek hartzen baitituzte bere gain gehienetan haur, mendeko, zahar eta gaixoen zaintza-lanak, zaintza-emozionalarekin lotutakoak, zaintza-lan materialak eta abar. Lan horiek doan egiten dituzte familiaren esparruan, eta soldatapean izatekotan, lan-baldintza oso prekarioetan eta lan- eta gizarte-eskubide gutxiarekin. Eta, hala ere, gure gizarteak ongi funtzionatzeko funtsezkoak dira.

Krisi honek feminizatutako lanbide horiei balio handiagoa ematearen garrantzia azaleratu du, lotuta baitaude bestelako diskriminazio-iturriekin, besteak beste, arraza, klase sozial edo adinarekin. Oraindik ere lan horiek bigarren mailakotzat jotzen dira, bizitzari eusteko funtsezko euskarri izan arren. Zaintza-zerbitzuak esparru publikoan nahiz osasun arloan, zaintzaileak zahar-egoitzetan eta etxez etxe, garbiketaren sektorea, supermerkatuetako langileak, gizarte zerbitzuak, hezkuntza... Lanbide horiek guztiek erakutsi dute funtsezko esparruak direla oinarrizko eta ezinbesteko premiak asetzeko "bizitzek bizirik jarraituko badute".

Krisiak ez dira lagungarriak izaten desberdinkeriak murrizteko; aitzitik, ikusgarriago egiten dituzte, eta, askotan, areagotu egiten dituzte. Baina aldatzeko aukera ere badira, berritzeko eta gizarte hobea eraikitzeko, indartsuagoa, erresilientea eta berdinzalea. Bizi-krisi eta krisi soziosanitario honek are ageriago utzi du bizi-eredua aldatu behar dugula, bizi-baldintzen apaltzera baikaramatza, bereziki emakumeen baldintzen apaltzera; eredu "biozida" da, non bizitzak ez diren lehentasuna.

Horregatik guztiagatik, pertsona guztien arteko erantzunkidetasuna azpimarratu nahi dugu, emakumeek lanaldi bikoitzak eta hirukoitzak egin ez ditzaten zaintza-lanak eta etxeetako bizitza sostengatzearen ardura bere gain hartzeagatik. Sexuaren araberako lan-banaketarekin amaitu behar da, eta aurrera egin ordaindu gabeko lanen antolaketa bidezkoa lortzeko, zereginak eta zaintza-lanak modu eraginkorrean banatuz.

Denbora mugatua da, eta pertsona guztiek gozatu behar dute modu parekidean; hau da, ez dadila gertatu batzuek denbora pertsonala izatea beste batzuen lanaren kontura. Beharrezkoa da familien, enpresen eta Estatuaren arteko erantzunkidetasuna ere egotea zaintza-lanen esparruak dakartzan alderdi guztiez arduratzean (zaintza-lanek eragiten dituzten beharrak artatzeko kalitatezko zerbitzu publiko unibertsalak, enpresen kontziliazio-politikak eta lan-banaketa familietako kideen artean, pertsona bakoitzak ahal duen neurrian).

Beharrezkoa da agerian uztea emakumeek pandemia honetan duten garrantzia, haren ondorioei erantzuteko lehen lerroan baitaude, eta, alabaina, aitortza eskasa duten esparruetan. Larrialdiak pasatzen dira, baina ez bazaie horien eragin ezberdinei aurre egiten, bereizkeria are gehiago handituko da. Inork ezin dio bakarrik eutsi bere buruari, interdependenteak eta zaugarriak gara, eta horregatik, zaintzarekin lotutako lanak funtsezkoak dira bizitzari eusteko. Krisi honek are ageriago uzten du zein garrantzitsua den bizitzak erdigunean jartzea eta paradigma aldatzea, bizitzak eta horien jasangarritasuna lehentasuna izan daitezen.

Horregatik guztiagatik, toki-erakunde garen aldetik, HONAKO KONPROMISO HAUEK adierazi nahi ditugu:

- **Agerian uztea zaintza-lanen sarea, horiek ahalbidetzen baitute bizitzaren jasangarritasuna.** Hau da, jakitun izatea lan produktiboen atzean zaintza-lanak eta lan erreproduktiboa kateatzea beharrezkoa dela, horiek ahalbidetzen baitute egunero lan-merkatuan aritu ahal izatea. Alde ikusezin hori aintzat hartu behar da, eta euskarri bat eman behar zaio.
- Agerian jartzea eta balioestea **emakumeek egiten dituztela** ezinbesteko lan ordaindu zein ordaindu gabeko horien gehiengoa, kasuen % 75 baino gehiagoan.
- **Bizitzaren jasangarritasuna** politiken eta gure antolaketa-sistemaren **erdigunean jartzea** eta gaur egungo eredia ordeztzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea **familiatan zaintza-lanak bana daitezen eta erantzunkidetasuna egon dadin.** Pertsonen bizitzak eta bizirik jarraitzeko behar dugun ingurune naturala aintzat hartuko dituen eredu bat bultzatzea, unibertsaltasun eta berezitasun printzipioekin bat.
- **“Ongi bizitzea”** sustatzea, hau da, pertsona guztiok edukitzea bizitzea merezi duten bizitza duinak (ez inoren bizkar, ezta baliabide naturalak agortuz ere).
- **Aitortzea** mugimendu **feministak** bere borroka, eskaera eta ekarpenetan egindako lana.
- Tokian-tokian **konpromiso** sendoa erakustea lan-ildo hau **agenda politikoan** lehentasunezkoztat mantendu dadin, eta bermatzea genero-ikuspegia txertatuko dela COVID-19ak eragindako krisi sanitario, ekonomiko eta sozialari erantzuteko egiten diren plan eta estrategietan.